

DIRU-SARRERAK

Diru sarreraren arloan sartuko gara orain. Gure enpresak, Handiparkak, hasieran adierazi dugun bezala, 16 eta 25 urteren bitartean dauden bezeroak izango ditu, beraz, adin horretako jendearentzako ahalik eta egokien diren prezioak eta ordaintzeko metodoak jartzen saiatu gara.

Lehenik eta behin, gure diru-sarrera iturria, erabileragatik kuota izango dela argitu behar da; iturri mota hau oso arrunta da gaur egun edozein lekutan, laburbilduz, iturri hau zerbitzu jakin baten erabileran oinarritzen da, hau da, bezeroak zerbitzu baten trukean ordainduko du kuota, eta geroz eta zerbitzu hori denbora luzeagoan jaso nahi izan, gehiago ordaindu beharko du kontsumitzaileak.

Gure diru-sarreraren metodoa argitu ondoren, gure zerbitzuen truk eskatuko ditugun kuotetan sartuko gara; hasieran adierazi genuen bezala, gure enpresa txiki-park baten modukoa izango da, baina haurren orde, jende gaztea izango da geure lehen ardura. Horretarako, astean zehar (igandeetan ezik) gure Handipark-a irekiko dugu adin gazteko pertsonentzat, eta 6 euroren trukean, ordu betez gozatzeko haukera izango dute gure parkean (larunbatetan 7 euro)



Gaur egun, ordaintzeko metodoak izugarri aldatu dira, eta etengabe metodo berriak ateratzen dira merkatura. Guk gure bezeroak kontuan hartzen ditugunez, edozein metodotan ordaintzeko aukera ematen saiatuko gara; adibidez 16-18 urte inguruko gazteak normala den bezala modu ohikoenean ordaintzeko ohitura izango dute, beraz metodo hori ez dugu gutxietxiko, baina teknologia berriak aurrera doazen bezala, geroz eta bezeroa elduagoa izan,

geroz eta ordaintzeko metodo berriagoak izango dituzte, beraz ate hoiek ere ez dizkiegu itxiko eta edozein mugikorreko aplikazioekin ordaintzeko aukera emango diegu (paypal, edozein bankuko aplikaziotik...). Ordaintzeko metodoekin amaitzeko, ezinbestekoa ikusten dugu gure bezeroei web orritik edozer gauza erosteko edo erreserbatzeko aukera ematea.

Bukatzeko, enpresako partaideak beharrezkoa ikusi dugu urtean zehar hainbat asteetan zehar oferta bereziak jartzea, adibidez azterketa asteak pasa ondoren, bi euro merkeagoa izango da sarrera Handiparkera, zeren eta ulertzen dugun bezala, gaur egungo gazteak estres eta presio handietara daude ezarrita, eta gure bezeroen ongi egona beharrezkoa denez guretzat, horralako beherapenek erakarri egingo dituztela pentsatu dugu.

